

FUNTSEZKO JARDUERA

Gure enpresaren jarduera nagusia, desfibriladorearen mantenuan eta formakuntzan oinarrituko da. Hauetara bideratuko dira gure irabazi gehienak, mantenuko beharrezkoak diren produktuak erosten eta gure langileei beharrezkoa den formakuntza egunera mantentzen. Langile hauen lana eta formakuntza bateratzeko, aurretik antolatutako ordutegi bat egongo da, horretaz gu arduratuko gara.

Edozein arazoren aurrean, bezeroek gure telefono zenbakia edukiko dute eskura. Arazoa mantenuan egonez gero, gure langile bat bidaliko dugu momentuan konpontzera.

Bestalde, webgune bat edukitzea ezinbestekoa dela uste dugunez. Beraren diseinuaz eta sorreraz gu geu arduratuko ginateke. Horretarako, diseinua gure kabuz egingo genuke baina webgunea sortzeko orduan, aditu batengana joko dugu.